

## EAEko EPE

Hurrengo informazioa Administrazioak luzatutako proposamena da, beraz, BEHIN BEHINEKOA da.

### **Maisu-maistren kidegoa:**

- Deialdia: otsaila inguruan argitaratu nahi dute.
- Merezimenduak eta programazio didaktikoa entregatzea: apirilaren amaieran aurreikusten da.
- Azterketa idatziak: maiatzaren bigarren hamabostalditik aurrera gauzatuko omen dira.
- Praktikaldea: irailetik aurrera izango dira eta praktikaldian zehar azterketa medikuak egingo ditu Administrazioak.

Especialitateak	2. HE		Guztira
	A	B	
<b>Haur Hezkuntza</b>	190	12	202
<b>Lehen hezkuntza</b>	398	24	422
<b>Ingelesa</b>	57	8	65
<b>Gorputz Hezkuntza</b>	19	3	22
<b>Musika</b>	19	3	22
<b>Hezkuntza Berezia- Pedagogia Terapeutikoa</b>	163	12	175
<b>Hezkuntza Berezia- Entzumena eta Hizkuntza</b>	17	3	20
Guztira	863	65	928

### **Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako kidegoa:**

- Deialdia: hainbat lanpostu ez "galtzeko" 2022.urtearen amaieran
- Prozesua gauzatu: 2023an
- Kidego txikietako EPEak (HEO, Kontserbatorioak...) 2023an edo 2024an egingo omen dira.
- Lanbide Heziketarako, aurreko EPEra aurkeztu ezin izan zirenek (titulazioagatik) hurrengo honetan aukera izango dutela aurreikusten dute.

Egungo oposizio-eredua zaharkituta dago eta jarraituko dugu Madrilen eredu berria aldarrikatzen! Oposizioetarako materiala euskaraz ere izatea beharrezkoa da eta urtero eskatu arren, Hezkuntza Sailak ez du ezer egiten.